



ALKIZAKO UDALA

UDALBATZARRAK 2021eko UZTAILAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2021eko uztailaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Concepcion Soria Legua

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ **2021eko ekainaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Udal garbitzailearen oporrak egiteko ordezkapenaren onespena, hala bada.**
5. **2020 urteko kontu orokorraren behin betiko onespena, hala bada.**
6. **Alkizako Sormenaren kabia: bi beken esleipena.**
7. **Erretore etxean dagoen Apaiz etxea alokairuan jartzeko proposamenaren azterketa, hala bada.**
8. **Larraulgo Udalak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
9. **Ingurumen teknikariaren hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data onestea, hala bada.**
10. **Sgae-k eginiko proposamenaren onespena, hala bada.**
11. **Etxabeguren landa bidearen konponketak egiteko lanen esleipena, hala bada.**



ALKIZAKO UDALA

zaiela zeintzuk dauden langabezian eta ordezkapen hau egiteko interesa duten ziurtatzeko, bakarra agertu delarik, hain zuzen, J.G. andrea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udaletxeko garbitzailearen oporraldirako ordezkapena egiteko, 2019ko abenduaren 26an Udalbatzarrak onestutako lan poltsa erabiltzeko baimena ematea.

BIGARRENA: J.G. andreari lan harremaneko kontratua egitea, abuztuaren 2tik 31ra bitartean, udaletxeko garbitzaile moduan dagozkion lanak egin ditzan. Astean 10,30ko ordutako jardunaldi batekin.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2020 URTEKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2021 urteko ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udalbatzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udalbatzarreko Lehendakariak emandako 2020 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.



ALKIZAKO UDALA

BIGARRENA.- 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen berri Kontuetako Hautitegiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: BI BEKEN ESLEIPENA

Ikusirik 2021eko maiatzaren 4an egindako Udalbatzarrean, Alkizako Sormenaren kabia: Deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena ematea erabaki zela.

Ikusirik aipaturiko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, maiatzaren 27an, proposamenak aurkezteko epea ireki zelarik, ekainaren 2tik uztailaren 5era.

Ikusirik Sormenaren kabiaren proiektuak baloratzeko 2021eko uztailaren 21ean, Susana Cencillo Garcia, Koldobika Jauregui Zinkunegi, Txiki Keixeta eta Mariasun Landa Etxebeste jaun/andreak osaturiko epaimahaia bildu zela. Ondorengo proposamena hartu zutelarik:

Maria Melo Obeso eta Joseba Arrizabalaga Zubizarreta-ri esleitzea 2021 urteko Sormenaren Kabiaren bi beka.

Ikusita Maria Melo Obeso andreak uko egin diola Sormenaren kabiaren bekari, Epaimahaia uztailaren 2an bilduta, erabakitzen dute, Ione Larrañaga Gorritxo andreari, Maria Melo Obeso andreak uko egindako Sormenaren kabiaren beka ematea.

Gaia aztertutik Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Ione Larrañaga Gorritxo eta Joseba Agirrezabalaga Zubizarreta sortzaileei Sormenaren kabiaren beken onuradunak izateko onespena ematea.

BIGARRENA.- Ione Larrañaga Gorritxo eta Joseba Agirrezabalaga Zubizarretari 1.000,00 euroko beka bana ematea eta bakoitzari Lete nekazaletxean 3 asteko egonaldia ordaintzea. Dagokion gastua onestuz, ordainketa udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kontura egingo delarik.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ERRETORE ETXEAN DAGOEN APAIZ ETXEA ALOKAIKIRUAN



ALKIZAKO UDALA

JARTZEKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA, HALA BADA

Alkate jaunak hitza hartzen du Udalbatza honetara bertaratuei jakitera emateko, erosi berria den Erretore etxean dagoen apaiz etxea txukundu dela.

Bestalde Alkate jaunak adierazten du next generation diru-laguntzak direla eta prestatzen ari dela diru-laguntza hauetara Erretore etxeko birgaitze integralerako aurkeztu beharko den dokumentazioa.

Beraz, proiektua, aipaturiko diru-laguntza hauetara aurkeztu ezkerro, eta hau onartua izango balitz, eraikin guziaren birgaitzea egin beharko litzateke, apaiz etxea barne. Bestalde, aipaturiko diru-laguntza hauetara proiektua ez bada aurkezten edo diru-laguntzarik ez badu jasotzen proiektuak, apaiz etxea errentan jartzeko aukera egongo da. Dagozkion oinarriak eta deialdia onartuz.

Proposamen honen berri batzarkideak hartzen dute.

ZORTZIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Udalak eginiko eskaera, non azaltzen duten abuztuaren 3an San Esteban eguna dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituztela eta horretarako 80 aulki uzteko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalari 80 aulki uztea, Larraulen, San Esteban dela eta antolatu dituzten ekitaldietarako. Aulkiak hartzeko Udal langilearekin harremanetan jarri beharko direlarik.

BIGARRENA: Larraulgo Udalari jakinarazi, aulkiak jasotako egoeran itzuli beharko dituela eta hauek hautsiz gero, berriak ekarri beharko dituela.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Larraulgo udalari ematea.



ALKIZAKO UDALA

BEDERATZIGARREN PUNTUA
INGURUMEN TEKNIKARIAREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA ETA
DERRIGORTASUN DATA ONESTEA, HALA BADA

Ikusita, Alkizako Udalaren lanpostu-zerrendan sortuta dagoen Ingurumen teknikariaren lanpostuan hizkuntza eskakizuna eta bere derrigortasun data finkatu gabe daudela.

Aipaturiko hutsegite hau zuzendu nahian, Alkizako Udalak, Herri Administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendariari Ingurumen teknikariaren hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data finkatzeko beharrezkoa den txostena egiteko eskaera luzatu diola.

Ikusita aipaturiko txostena eman dela, ondorengo proposatzen delarik:

TALDEA	EGOERA	LANPOSTUAREN IZENA	PROPOSATUTAKO DERRIG. DATA:	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARTZEKO PROPOSAMENA
A2	Finkoa	INGURUMEN TEKNIKARIA	2021/07/27	4.H.E.

Ikusita Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak emandako txostenean proposatutakoa onartu eta bere eragina izan dezan, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituz, txostena jaso ondoren, Alkizako Udaleko gobernu organo eskudunak hartu beharko du 23.4 artikuluan ezarritako erabakia egindako proposamenaren gainean.

Aipaturiko artikulua ondorengo dio:

“4- Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako txosten hori jaso ondoren, herri-administrazioaren gobernu-organok hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ezartzeko erabakia hartuko du. Era berean, horren arabera lanpostu-zerrendan egin beharreko aldaketak egitea onartuko du.”

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16.artikuluan dionari jarraituz, lanpostu zerrenda eta berari dagozkion aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak igorritako txostenean eginiko proposamena onestea, hau da, Ingurumen teknikariaren lanpostuan hizkuntza eskakizuna eta bere derrigortasun data onestea, ondoren kuadroan azaltzen den modura:

TALDEA	EGOERA	LANPOSTUAREN IZENA	PROPOSATUTAKO DERRIG. DATA:	HIZKUNTZA ESKAKIZUNA EZARTZEKO PROPOSAMENA
A2	Finkoa	INGURUMEN TEKNIKARIA	2021/07/27	4.H.E.

BIGARRENA: Alkizako Udalaren lanpostu zerrendan onarturiko aldaketa hau egitea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HAMARGARREN PUNTUA

SGAE-K EGINIKO PROPOSAMENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita Sociedad General de autores y editores, hau da, SGAE-rekin Alkizako Udalak, 2014 urtetik hona 2.538,00 eurotako zorra duela.

Ikusita, Alkizako Udalak borondatea duela SGAE-rekin duen zorra kitatzeko.

Ikusita Alkizako Udalak, Joseba Palacios SGAE-ko ordezkariarekin adostu duela gaur egun duen zorra kitatzea.

Ikusita, Alkizako Udalak duen borondatea, SGAE-Ko ordezkariak jakinarazi dio Alkizako Udalari, EUDEL ekin duen hitzarmenaren arabera, %25eko kitapena egingo duela Alkizako Udalak duen zorrari. Beraz, kitapena aplikatu ondoren Larraulgo Udalak 2.017,00 euroko zorra izango du SGAE-rekin.

Ikusita Alkizako Udalak 2021eko aurrekontuetan ez duela zor honi aurre egiteko diru-kopuru adina, zorra hiru urtetan kitatzeko adostasunera iritsi dira Alkizako Udalak eta SGAE-ko ordezkariak.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Sociedad General de Autores y Editores, SGAE-rekin duen 2.017,00 eurotako zorra onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. Ordainketa hiru zatitan egingo da:

- 1.go ordainketa, hau da, 566,33 euro, erabaki hau hartu ondoren.
- 2.go ordainketa, hau da, 725,65 euro, 2022ko aurrekontuak onartu ondoren.
- 3.go ordainketa, hau da, 725,98 euro, 2023ko aurrekontuan onartu ondoren.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Sociedad General de Autores y Editores, hau da, SGAE-ri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ETXABEGUREN LANDA BIDEAREN KONPONKETAK EGITEKO LANEN ESLEIPENA, HALA BADA

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du Etxabeguren Landa bidean konponketa lanak egitea, ez dagoelako egoera egokian.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko.

Ikusirik lan hauek egiteko hiru aurrekontu eskatu direla: I.Z.Eraikuntzak S.L., LAU HAIZETARA S.L. eta OSTARBI Eraikuntzak eta Zerbitzuak enpresei hain zuzen.

Aipaturiko aurrekontuak azterturik, OSTARBI Eraikuntzak eta Zerbitzuak enpresarena, kontzeptu guztiak kontutan izanik merkeena dela aurreikusten da.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberak kontratu txiki baten aurrean gaude. *Obra* kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.



ALKIZAKO UDALA

1. *Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. *En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

3. *En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

4. *Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Obra kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 40.000,00€ azpitik dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: OSTARBI Eraikuntzak eta Zerbitzuak *enpresari*, Alkizako Etxabeguren landa bidean konponketa lanak egiteko lanen kontratua esleitzea 8.410,13€-tako diru kopuruan (BEZ kanpo). Ordainketa 601.153.20.01 kontu sailaren kontura egingo da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z.Eraikuntzak S.L., LAU HAIZETARA S.L. eta OSTARBI Eraikuntzak eta Zerbitzuak enpresei ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

12.1. IZFE S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA- HITZARMENAREN ONSPENA

Ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika -zerbitzuak eskaini eta ematen dizkiela Lurralde historikoko udalei nahiz bestelako toki-erakundeei, informatika Zerbitzuen Foru Elkarte-Sociedad Foral de Servicios Informaticos S.A.-ren bitartez, aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua izaki.

Ikusita Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak, S.A. merkataritzarako Entitatearen Estatutu Sozialen 3. Artikuluak honek xede sozialtzat Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzeta eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betetzeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du.

Zuzenbidearen ikuspegitik, laguntza hori aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatu dute eta hitzarmen hori oinarri hartuta sinatzen dira gero udal edo toki-erakunde bakoitzaren eta IZFE S.A-ren arteko berariazko hitzarmenak.

Ikusita 2002. Urtean izenpetu zela Lankidetzarako esparru hitzarmen hori duela gutxi berritu egin dela.



ALKIZAKO UDALA

Ikusita, lankidetzarako esparru-hitzarmen horren arabera, bere lurraldeko udalek nahiz bestelako toki-erakundeek arlo honetan behar duten laguntza teknikoa bere foru sozietate publikoaren bitartez emateko konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, hari alde aurretik mandatua emanda.

Ikusita berariazko hitzarmenetan, berriz, delako toki-erakundeari dagokionez garatu beharreko jarduketak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak zehazten direla, betiere, esparru-hitzarmenak modu orokorrean aurreikusi dituen estipulazioei jarraikiz.

Ikusita aipaturiko hitzarmena prestatu dela eta honen helburua IZFE S.A. sozietateak Alkizako Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea duela helburu. Halaber, zerbitzuak egiteko era eta baldintzak zehaztuko direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: IZFE SA., Informatika zerbitzuen Foru Elkartearen eta Alkizako udalaren arteko Lankidetzeta-Hitzarmena onestea, hitzarmen honen helburua, IZFE S.A. sozietateak Alkizako Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea duela helburu. Halaber, zerbitzuak egiteko era eta baldintzak zehaztuko direla.

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Alkatea ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri IZFE, S.A., informatika zerbitzuen Foru Elkarteari ematea.

LAUGARRENA: Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko iragarki taulan argitaratzea.

12.2. AUZOLANDEGI PROGRAMAN UDAL ORDEZKARIA IZENDATZEA

Ikusita auzolandegi programa martxan dagoela eta udal ordezkari bat izendatu behar dela.



ALKIZAKO UDALA

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Auzolandegi programan, Guillermo Otegi zinegotzia, Alkizako Udaleko ordezkaria izendatzea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA
MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.10etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

